

Behean sinatzen duten alderdietako bozeramaileek Lasarte-Oriako udalerrria Siriako gerrako eta gatazkan diren beste herrialde batzuetako errefuxiatuen aterpetzaile deklaratzeari buruzko mozioaren ondoko emendakin transakzional hau aurkezten dute.

1.- Lasarte-Oriako Udala aterpe-hirien sarea deritzonarekin bat egitera konprometitzen da, orain Sirian eta hurbileko herrialdeetan gertatzen ari den bezala gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten errefuxiatuak aterpetzeko dispositiboak prestatuz, eta herritarrei dei egiten die inplika daitezen eta ahal duten neurrian kolabora dezaten errefuxiatuei arreta eta laguntza ematen.

2.- Lasarte-Oriako Udalak, hartzekoak dituen errefuxiatu posibleen berri jakindakoan, Bozeramaileen Batzarra deituko du, udalarekin aldetik kasuetako bakoitzean hartu beharreko neurri zehatzak erabakitzeko.

3.- Lasarte-Oriako Udala Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzera konprometitzen da, bai eta Euskadiko beste udalekin elkarlanean aritzera ere, errefuxiatuak aterpetzeko sare lokal bat artikulatzeko helburuarekin.

4.- Lasarte-Oriako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berehala presta dezala Eudelekin eta foru-aldundiekin elkarlanean plan bat, Siriako eta Irakeko gatazkengatik desplazatuta Espainiara iristen diren pertsonak Euskadin ahalik eta agudotasun eta zabaltasun handienarekin aterpetzea ahalbidetuko duena, hiri aterpetzaileen sarearekin bat egiten duten udalerriei behar duten sostengua emanaz eta larrialdiko egoera arintzeko laguntza ekonomiko bereziak bideratuz.

5.- Lasarte-Oriako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Europar Batasunaren barruan estatu kide bakoitzak dagozkion errefuxiatuak aterpetzeko egiten diren negoziazioetan bere jarrera malgu dezala, eta asilo politikoa eskatzen duten pertsonen kasuan joka dezala eskuzabaltasunez eta zekenkeriarik gabe asiloa ematerakoan.

6.- Lasarte-Oriako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Europar Batasunean defenda dezala immigrazioaren eta asiloaren gaien politika komun bat martxan jartzea eta hori koordinatuko duen europar agintaritza bat jartzea.

7.- Lasarte-Oriako Udalak Europar Batasuneko buruzagiei eta estatu kideetako gobernuei exijitzen die erantzun aktiboa eman diezaiotela krisi humanitario honi, solidaritate eta justizia humanitariotik, eta beharrezko baliabideak xeda ditzatela gerra horietatik ihes egiten duten guztiak edo tragedia honi etekina ateratzen dioten mafien biktima direnak aterpetzeko, eta, era berean, jar dezatela martxan erreskateko eta salbamenduko operazio efikaz bat, beharrezko baliabideak eta irispidea izango dituen, sokorritzeko eginbidea betez, Mediterraneoan heriotza gehiago gerta ez dadin.

8.- Lasarte-Oriako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, behin gatazkak amaitutakoan, beharrezko mekanismoak eta baliabideak ezar ditzala arren-eta udalerrri honetan errefuxiatutako pertsonak beren jatorrizko hirietara itzul ahal daitezen, betiere hori bada nahi dutena. Horretarako, Udal hau Espainiako Gobernuarekin elkarlanean aritzera konprometitzen da, diru-laguntzen edo

bestelako neurrien bidez, hori posible izango dela bermatzeko.

9.- Lasarte-Oriako Udalak erabaki hau hartu duela jakinaraziko die Espainiako Gobernuko presidenteari, Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, Gipuzkoako diputatu nagusiari eta Eudéleko jarduneko lehendakariari.

PSE-EE

EH BILDU

Ahal Du Lasarte-Oria Puede